

» TELEGRAMA

Badator uda, badatoz gure herri eta hirietako festak eta aukera paregabea da horietan genero-harremank nola funtzionatzen duten aztertzeko: **Festak, genero-harremank eta feminismoa** liburua aurkeztuko dute, hain zuzen, ekainaren 22an Iruñeko Katakraken **STOP Eric Baudelaire** artistari eskainitako erakusketa inauguratuko du ekainaren 23an Donostiako Tabakalerak; egilearen hainbat film eta jarduera paraleloak ez galtzeko modukoak dira **STOP** Gutxi ezagutzen dugun zinema korearrari zikloa eskaini diote Bilbao Arten. Ekainaren 23an **Choi Dong-Hoon** zuzendariaren *Assassination* filma eskainiko dute **STOP**

» DISKOA

Balerdi Balerdiren espiritua



Joxi Ubeda



Galtzen ikasteko metodoa BALERDI BALERDI

Gor, 2017

Disko dotorea egin du Balerdi Balerdi taldeak. Kantuetan melodia politak entzun daitezke, rock doinu eta erritmo indartsuak, eta pop eta country aireak. Betiko Balerdi Balerdi da, baina jantzi berriekin.

Iñigo Irazoki soinu teknikariarekin aritu dira grabazio saioetan, baita lagun hauekin ere: Beñardo Goietxe (koruak), Julen Leuza (haize moldaketak, tronpetak eta tronboia) eta Ion Osés (tronpetak). Halaber, Joseba Beramendi *Exprai* da azalaren egilea, eta hitzak idazteko garaian Pello Lizarralde idazlearen laguntza izan dute, hiru kanturenak idatzi baitizkie, eta gainerakoak Toño Muro taldeko abeslari eta gitarristak egin ditu.

Izenburuak ederki laburbiltzen du edukia, kantuetan, oro har, ironiarekin mintzatzen baitira, ohi bezala. Samur ere bai (*Elurretan*) eta hildako bi lagunekin gogoratu dira *Bi izar* kantuan, Josetxo Ezpondarekin eta Marco Antonio Sanz de Acedorekin. Lehenengoa Tension eta Los Bichos taldeetan aritu zen, eta bigarrena Tijuana in Blue eta Kojon Prieto y los Huajalotes taldeetan.

Balerdi Balerdiren bosgarren diskoa da *Galtzen ikasteko metodoa*. Haien aurreko lanak dira: *Balerdi Balerdi* (1991) hamar habzabeteko biniloizko diskoa, eta *Ez gara galdu* (1994), *Hobe behin gorri ezenez beti hori* (1997) eta *Hegoko lautadaren ertzetik* (2012) lanak.

Taldearen ibilbidean musikari batzuk aldatu badira ere, hasieratik jarraitzen dute Toño Murok (ahotsa eta gitarra) eta Sergio Ibarrola *Zara* (bateria, perkusioa eta koruak). Duela hiru urtetik Berako bi lagun hauekin jotzen dute: Petti (gitarra eta ahotsak) eta Anxel Iraola (baxua).

Taldeak, beti bezala, gogotsu eta alai aritzen da, eta bizipoza transmititzen jarraitzen du. Balerdi Balerdiren espiritua bere horretan mantentzen da, eta Pettik egiten duen ekarpena nabarmena da, beste ukitu bat, rock kutsu handiagoa ematen baitie kantuei eta indar handiagoa.

Lan berrian dauden hamalau kantuek, azken urte hauetan konposatu eta moldatu dituztenak dira, azken urteotan egin duten lanaren laburpen gisako bat, kantu bilduma ederra. ■



Balerdi Balerdi taldearen bosgarren diskoa da "Galtzen ikasteko metodoa".